



Xorimaloa: alorretan eta baratzetan ezartzen den xorien iziaraztekoa. Arropa eta trapu zaharrez jantzirik, jendearen itxura ematen zaio. Mamua.

marrubi: fruitu gorri mami-tsua. Arraga.

Baratze handi bat **marrubiz** bete-beterik zegoen. Marrubien artean, **xorimalo** bat: lastozko burua eta gorputza trapu zaharrez estaliak. Han zegoen, xutik, geldi-geldia, marrubien zaintzen.

Handik pasatu zen Gexan. Gizon zaharra zen Gexan. Etxerik ez zuen, ez eta familiarik ere. Herriz-herri ibilki zen eta jendeak bizitzeko doia emaiten zion.

Gexanek xorimaloa ikusten du.

– Xorimalo honen jantziak hartuko ditut eta mozorrotuko naiz. Erran eta egin: jantzi zaharrak soinean ezarririk, egunak eta egunak iragaiten ditu mugitu gabe, baratzearen erdian. Baina gauaz baratzekeo marrubiak jaten ditu.

Egun batez, baratzezaina ohartzen da norbaitek marrubiak jaten dizkiola. Orduan, makila harturik, zanpa-zanpa baratzerara abian da. Harat-eta, hala dio:

15 – A! Baneki nork jaten dituen ene marrubiak!

Gexanek orduan :

– Nik badakit nork jaten dituen zure marrubiak. Ilargiko sorgin batek, gauaz, marrubi goxoenak jaten ditu.

20 Gizona harriturik gelditu zen : xorimaloa mintzaten entzun zue-lakotz eta sorgin ipuinak kontatzen baitzituen.

Lasterka joan zen etxera. Gexan irriz gelditu zen baratzean.

Elkar argitaletxeko *Zipristin 1* liburutik egokitua.

① IRAKURGAIA ULERTZEN DUT

- Xorimaloa zer da?
- Zergatik xorimalo bat egin du baratzezainak?
- Zergatik Gexan mugitu gabe egoiten da egun guzia?
- Zergatik lotsatu da baratzezaina?
- Zuei ere irrigarri zaizue ipuina?

② HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

► Hitz hauek nahas-mahas emanak dira. Bi gairi lotuak dira. Bi zutabe egin eta hitz bakoi-tza doakion zutabeen idatz.

mozorrotu

gerezia

xapela

marrubia

intzaurra

ihauteri

lastoa

jantzi zaharrak

porrua

xorimaloa